Subvenciona / Diruz laguntzen du

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

Instituto Navarro para la Igualdad

INAI NABI

Nafarroako Berdintasunerako Institutua

Pacto de Estado contra la violencia de género

2026ko azaroaren 25a

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna

Irakurketa Errazean

Ez ahaztuak, ez ikusezinak



Azaroaren 25ean,
Nafarroako toki eta lurralde entitateek
ahotsa goratzen dugu,
emakume askok jasaten duten
indarkeria matxistari ezetz esateko.

Toki eta lurralde entitateak
Nafarroako herritarren beharrei erantzuteko
lan egiten dute.
Adibidez, udalak.

Indarkeria matxista
emakumeek emakume izateagatik
jasaten duten indarkeria da.

Indarkeriarik gabeko mundu bat nahi dugu.
Mundu horretan, emakumeek eta neskek
beldurrik gabe bizi ahal dute,
askatasunez eta eskubide guztiekin.



Zeri buruz hitz egingo dugu aurten?

Aurten, adineko emakumeek
jasaten duten indarkeria matxistari buruz
hitz egin nahi dugu.

Aurtengo leloa hau da: **Ez ahaztuak, ezta ikusezinak ere.**

Lelo hau adineko emakumeak
kontuan hartu behar ditugula
esan nahi du.
Adineko emakumeek
indarkeria matxista jasaten dute.
Indarkeria hori ezagutu
eta kontuan hartu behar dugu.

Adin guztietako emakumeek
indarkeria matxista jasan dezakete.
Baina batzuetan,
emakumeek indarkeria gehiago jasan dezakete:

- Zahartzen direnean.
- Beste pertsona batzuen laguntza behar dutenean.

Indarkeria matxista inoiz ez da kontu pribatua.
Indarkeria etxean gertatzen bada ere,
gizarte osoak indarkeria hori
amaitzen lagundu behar du.

Emakume batek urte asko eraman ditzake
bikotekidearekin.
Emakumea adinekoa ere izan daiteke.
Baina egoera horietan ere,
ez dugu indarkeria onartu behar.

Emakume batek ere
ez du indarkeria matxista jasan behar.

Zergatik dituzte adineko emakumeek laguntza eskatzeko zailtasun gehiago?




Adineko emakumeek indarkeria matxista jasan dezakete.
Gainera, adinagatik diskriminazioa ere jasan dezakete.
Adinagatiko diskriminazioa
pertsona bat bere adinagatik
gaizki tratatzea da.

Egoera batzuetan, adineko emakumeek
zailtasun gehiago dituzte indarkeria ezagutzeko.
Baita laguntza eskatzeko ere.
Adibidez:

- Emakumeak ez du dirurik
  eta bikotekidearen dirua behar du.
- Emakumea laguntzeko pertsona gutxi izatea.
- Bakarrik bizitzea
  edo beste pertsona batzuekin harreman gutxi izatea.
- Indarkeria normala dela pentsatzea,
  urte askotan egoera hori bizi dutelako.
- Jasaten duten indarkeria kontatzeko beldurra izatea.
- Beren itxura fisikoagatik
  edo zahartzean gorputzak dituen aldaketengatik
  kritikak jasotzea.
- Beste pertsona batzuk zaintzeko
  ardura gehiegi izatea.
- Internet edo mugikorrak erabiltzeko zailtasunak izatea.
- Emakumea gaizki tratatzen duen
  pertsonarekin urte asko bizitzea.

Zer gertatzen da adineko emakumeek bikotekideen indarkeria jasaten dutenean?



Adineko emakume batzuk
bikotekideen indarkeria matxista
urte askotan zehar jasaten dute.
Batzuetan, indarkeria horrek
hamarkada asko irauten ditu.
Hamarkada bat 10 urteko aldia da.

Egoera horrek emakumeen osasun fisikoari
eta emozionalari eragiten die.
Emakume batzuek urte askotan indarkeria jasaten dute.
Horregatik, batzuetan,
indarkeria normala dela pentsatzen dute.
Gainera, beren egoera ezin dutela aldatu
pentsatzen dute.

Askotan, gizarteak
ez ditu adineko emakumeak entzuten.
Batzuetan, gizarteak
adineko emakumeak
haurrak bezala tratatzen ditu.

Gainera, gizarteak
adineko emakumeek
beren erabakiak hartzeko
laguntza behar dutela uste du.

Adineko emakume askok
urte asko eman dituzte
beste pertsona batzuk zaintzen.
Batzuetan, bikotekideak
gaizki tratatzen ditu.
Baina emakumeek
bikotekideak zaintzen jarraitzen dute.
Beste pertsona batzuk zaintzen dituzte bitartean ere,
indarkeria jasan dezakete.

Egoera horiengatik,
emakumeek zailtasun gehiago dituzte
bikotekidearekin duten harremana amaitzeko.

Datu garrantzitsu batzuk



Espainiako Gobernuko
Genero Indarkeriaren aurkako Ordezkaritzak
ikerketa bat egin zuen.
Genero Indarkeriaren aurkako Ordezkaritza
Espainiako Gobernuaren talde bat da.
Talde horrek emakumeen aurkako indarkeria
amaitzeko lan egiten du.

Ikerketa bat gai bati buruzko lan bat da.
Lan horretan,
pertsonek informazioa bilatzen dute.
Horrela, gai hori
hobeto ezagutzen dute.

Ikerketa horretan,
65 urtetik gorako emakumeek
jasan duten indarkeria matxista aztertu zuen.
Ikerketaren arabera:

- 65 urtetik baino gehiago duten 100 emakumetik,
  5 emakumek beren bikotekideen
  indarkeria fisikoa jasan zuten
  beren bizitzan zehar.
  Indarkeria fisikoa,
  pertsona batek emakume bat
  jotzea, bultzatzea edo gorputzean min egitea da.
- 100 emakumetik ia 3 emakumek
  sexu-indarkeria jasan zuten.
  Indarkeria hori beren bikotekideek egin zuten.
  Sexu-indarkeria,
  pertsona batek emakume bat
  nahi ez dituen sexu-harremanak izatera
  behartzen duenean da.

- 100 emakumetik ia 9 emakumek
  indarkeria ekonomikoa jasan zuten.
  Indarkeria hori
  bikotekideren batek egin zuen.
  Indarkeria ekonomikoa,
  pertsona batek emakume baten dirua
  kontrolatzen duenean da.
  Hau da, dirua askatasunez erabiltzen
  uzten ez dionean da.

Ikerketak ere, emakume batzuek
zenbat denboraz indarkeria jasan zuten azaltzen du.
Datuen arabera:

- 100 emakumetik 40 emakumek indarkeria jasan zuten.
  Indarkeria horrek 40 urte baino gehiago iraun zuen.
- 100 emakumetik 27 emakumek indarkeria jasan zuten.
  Indarkeria horrek 20 eta 30 urte artean iraun zuen.

Datu hauek, adineko emakumeek ere
indarkeria matxista jasaten dutela erakusten dute.
Emakume askok urte askotan
indarkeria jasaten dutela erakusten dute.

Batzuetan, adineko emakumeek
indarkeria onartzeko
edo indarkeriaz hitz egiteko zailtasunak dituzte.

Gizarteak ez ditu beti egoera hauek ezagutzen
edo kontuan hartzen.

Zer konpromiso hartzen ditugu Nafarroan?



Nafarroako toki eta lurralde erakundeok
7 konpromiso hartzen ditugu:

- **Adineko emakumeen aurkako indarkeria matxista ezagutaraztea**
  Gizarteak indarkeria hori aitortzea nahi dugu.
  Gainera, administrazio publikoek
  indarkeria prebenitzeko eta emakumeei laguntzeko
  neurriak hartzea nahi dugu .

- **Ideia matxisten aurka borrokatzea**
  Indarkeria matxista justifikatzen duten ideiak
  desagertzea nahi dugu.
  Indarkeria matxista normala dela
  esaten duten ideiak ere
  desagertzea nahi dugu.
  Pertsona batzuek, adineko emakumeek
  beren erabakiak ezin dituztela hartu uste dute.
  Ideia hori desagertzea nahi dugu.

- **Indarkeria matxistaren prebentzioa eta detekzioa hobetzea**
  Profesionalak prestatu nahi ditugu.
  Horrela, profesionalak
  indarkeria matxista ezagutuko dute
  eta adineko emakumeak lagunduko dituzte.
  Adibidez, gizarte zerbitzuetako profesionalak,
  osasuneko profesionalak, polizia,
  justizia eta berdintasuneko profesionalak.





- **Adineko emakume guztiek laguntza eta babesa jasotzea**
  Zerbitzuak eta laguntzak
  emakume bakoitzaren beharretara
  egokitzea nahi dugu.
  Horretarako, kontuan izan behar dugu:
  - Non bizi diren.
  - Desgaitasunen bat duten.
  - Beste pertsona batzuen laguntza behar duten.
  - Internet erabiltzeko zailtasunak dituzten.

- **Adineko emakumeei laguntzeko sareak hobetzea.**
  Laguntzeko sareak
  pertsona bati laguntzen dioten pertsonak eta taldeak dira.

  Familiek, elkarteek, adinekoen zentroek,
  profesionalek eta gizarte osoak
  elkarrekin lan egitea nahi dugu.
  Helburu hauek lortzeko:
  - Indarkeria matxista aitortu.
  - Indarkeria hori prebenitzea .
  - Indarkeria hori ezagutaraztea.

- **Adineko emakumeei entzutea eta haien iritziak kontuan hartzea.**
  Haien esperientziak, beharrak
  eta proposamenak ezagutu nahi ditugu.
  Gainera, indarkeria matxistaren aurkako neurriak
  prestatzen direnean,
  adineko emakumeen iritziak
  kontuan hartu nahi ditugu.
  Adineko emakumeen parte hartzeko eskubidea
  errespetatu behar dugu.
  Emakume hauen erabakiak hartzeko eskubidea ere
  errespetatu behar dugu.

- **Indarkeria matxista amaitzeko lanean jarraitzea**

  Administrazio publikoek
  elkarrekin lan egitea nahi dugu.
  Helburu hauek lortzeko:

  - Indarkeria matxista prebenitzea.
  - Emakumeak babestea.
  - Emakumeen eskubideak ziurtzatzea.

Gure azken mezua



2026ko azaroaren 25ean,
pertsona guztiak honako hau egitera
gonbidatzen ditugu:

- Adineko emakumeek
  gizartean egiten duten lana ezagutzea
  eta baloratzea.
- Emakumeek indarkeria salatu ahal izateko
  leku seguruak sortzea.
- Adineko emakumeek jasaten dituzten
  indarkeria matxista mota desberdinak ezagutaraztea.

Pertsona guztiok
elkarrekin lan egin behar dugu.
Horrela, emakume guztiak
indarkeria matxistarik gabe
bizi diren gizarte bat lortu nahi dugu.

Gogoratu

Adineko emakumeek ere indarkeria matxista jasaten dute.

Gizarte osoak indarkeria hori amaitzen lagundu behar du.